

Balsid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Eta gero gerokoak

I

noiz, eskuartean dugun auziaren zailtasunaren eta larritasunaren ondorioz etsipenaren aldabak jotzen duenean, “norbaitek zerbait asmatuko du” gisako esaldietan bilatzen dugu kontsolamendua. Hori gertatzen da, esaterako, klima aldaketaren auzian. Teknologiak etorkizunean konponbide modukoren bat ekarriko digulako itxaropena dugu, gaur-gaurkoz zentzuzko politikarik gauzatzen ez dela ikusita.

Eta euskararen auziarekin antzeko tentaldia izan genezake. Pentsa dezakegu, adibidez, gaur egun euskararen normalizazio-prozesuan saihestezin eta traba diren hainbat arazo edo eragozpen “tekniko”, teknologiaren laguntzaz aise saihestu eta konpondu ahalko ditugula etorkizunean. Etorkizun hurbil samarrerako –50 urteren bueltan– egiten diren aurreikuspen zientifikoak eta teknologikoak ikusita, ez dirudi gehiegizkoa denik geuk ere geureak egitea: imajina dezakegu, konparaziora, testu oro momentuan eta automatikoki euskaraz eman daitekeela; imajina dezakegu gure solaskideen ahotsa, hark hizkuntza batean edo bestean eginda ere, guk nahi dugun hizkuntzan entzun ahalko dugula; imajina dezakegu gure hautemate linguistikoko osoa manipulatu eta nahi dugun hizkuntzan bizi ahalko garela.

Teknologiaren gizarte horretan euskara teknikariak errobotak izanen dira akaso, eta haiei sen-



KARLOS CORBELLA

timenduak txertatzea lortuz gero, euskaltzale amorratuak eta epelak ere izanen dira androide horien artean. Kale neurketak, diagnostikoak, planak eta jardunaldiak ere konputagailu modernoek antolatuko dituzte, agian.

Euskaraz bizi ahalko ginateke gizarte horretan, beraz, nahiz eta agian hizkuntza-komunitatea kontzeptua desagertuko litzatekeen, hizkuntza batean edo bestean bizitzea erabaki zeharo indibiduala izanen bailitzateke. Ez dakit, bestalde, horrek gaurko euskaltzalea asetuko lukeen, edo batere xarmarik gabeko lorpena litzatekeen.

Kontua, hala ere, beste bat da. Axola diguten eta hunkitzen gaituzten gai eta auzi horien aurrean, komeni al da etorkizunerako horrelako espektatibak izatea? Edo, fantasian gehiegi murgildu gabe, hobe dugu auzia ahal dela gaur bertan eta gaurko parametro estu eta zailtan erabakitzea?

Tira, nik ez diot fantasiari eta egoe-rak imajinatzeke ariketari utziko. Baina, hala ere eta badaezpada, ariketa zozoa-goa eta gordinagoa den arren, uste dut hobe dugula irtenbideak ezagutzen dugun errealitatean planteatzea, batez ere egia baldin bada datozen urteotan herri honen etorkizun politikoa –eta linguistikoa– erabaki daitekeela. Gauzak gaur ongi lotuta utzi, beraz, eta gero gerokoak. ■



Hobe dugu irtenbideak

ezagutzen dugun

errealitatean planteatzea,

batez ere egia baldin bada

datozen urteotan herri

honen etorkizun politikoa

erabaki daitekeela



TXANDAN

Joxerra Garzia



Bi mutiko,
hamahiru-
hamalau urte-

koak, ikastolako jolas tokian, elkarri mokoka ari dira, *putakume-kabroi-kaguenka*. Euskarako andereñoa hortxe dutela konturatuta, liskarra euskaraz jarraitzeko “premia” sentitu dute. Pare bat segundo aski izan dute memoria miatu eta euskarazko irainik gogorrena aurkitu eta jaurtitzeko: *tontolapiko!*

Aspalditxo ezarri ziren A, B eta D ereduak EAEko hezkuntza sisteman. Egin diren frogen emaitzen harira, A ereduaren erabateko porrota eta B ereduaren desegokitasuna aipatu ohi dira sarri, eta ez dut nik hori eztatidatu. Baina mesede eskasa egingo diogu geure buruari D ereduaren antzeko zerbait ezarrita den-dena konponduko dugulako uste ustelekan bagaude. Kontua, azken batean,

zeri ematen zaion lehentasuna. Eta lehentasuna, erabatekoa gainera, hiztunei eman behar zaie, ez hizkuntzari. Hiztunei, eta haien benetako komunikazio premiei. Eta hiztunek, alde eta aldi guztietakoek, irainak –eta ziriak, eta kontsolamenduzko hitzak, eta liluratzekoak– behar dituzte bizitzeko. *Zintzizkiokete*, hatxedun hitzen zerrenda eta metaforaren definizioa, aldiz, azterketa gaintzeko baizik ez dituzte behar.

Aukeran bi hizkuntza izan eta horietako batek ez badio *tontolapiko* baino baliabide egokiagorik eskaintzen bere barrua lasaitzeko, bestera joko du beti hiztunak.

Ez dela hori eskolaren egitekoa? Norena, orduan, etxeak eta kaleak kale egiten badigu euskal herri gehienetan? ■

ez da zenbat euskara irakasten den, zer eta nola irakasten den baizik,